



79.zk

2023^{ko}
abendua

Berbarotarra



genituen egun horretan Durangon kantatzeko, eta eskerako "gozokiak emon ala lurpean egon!" esaldia.

Itzela izan zen lehen edizio honek izan zuen harrera: ikastetxe guztiak inplikatu eta Tabiran ehunka lagun batu ginen. Tabiratik arimen etorrera egin genuen Alde Zaharrera. Kalejira Alde Zaharrean sartu zen unean oraindik jendea zegoen Tabiratik abiatu barik, jendetza! Gaba Baltzeko koplak Santa Anan kantatu ostean, Andra Marin amaitu genuen ibilbidea. Ikuskizuna eduki genuen Karrika, Kriskitin eta Jaizalaren eskutik, eta obretan dagoen elizpea txiki geratu zitzaigun hainbeste jenderentzat.

Gaba Baltza Durangora

Beste herri askotan egin den moduan, urriaren 31n Euskal Herriko Gaba Baltza birsortzea izan da gure helburua. Durangoko Udalak, Hezkuntza Zentroek eta herriko zenbait elkartek elkarlanean ekarri dugu ospakizuna Durangora, Berbaro elkartearen koordinazioarekin. Antzinako ohitura eta jaiak

gaurkotasunera ekarri eta berrasmatu ditugu, euskara, komunitatea eta ez-kontsumismoa ardatz hartuta. Horretarako, Euskaltzaleen Topaguneak sortutako www.gaubeltza.eus webguneko edukiak hartu genituen oinarri, baita bertan dagoen lan etnografikoa ere. Filosofia hori hartuta, koplak batzuk asmatu

Balorazio oso positiboa egin dugu. Uste dugu jai hau urtero Durangon ospatzeko lehen harria ipini genuela, eta ohitura bihur dadin gura dugu orain. Halloween fenomenoak zabaltzen dabiren honetan, euskaratik, komunitatetik eta ez-kontsumismotik erantzun genuen Durangon, eta aurrerantzean ere horrela izango da.

Udazkena literaturaz gainezka

Haur Literatur Aretoa urritik abendura egiten dela kontuan izanda, aurten udazkena lantzea erabaki da. Lau herrik hartu dute parte aurten: Zornotza, Durango, Zaldibar eta Elorrio. HH4tik LH6ra bitarteko 4.590 ikasle izan ditugu HLAko ekintzetan. Iaz bezala, erakusketa girotua, ipuin antzetzua, ipuin kontaketa, antzerkia, sormen tailerra eta

liburu erraldoia eskaini ditugu. Gaia udazkena dela aprobetxatuz, antzerkian eta ipuin antzetzuan heriotza eta beldurrak lantzeko aukera izan dugu Gau Beltzaren bitartez, data horietan kokatzen baita. Horrez gain, urtero bezala, aurtengo liburu berriak eta iazko liburu gomendagarriak proposatzen dituen irakur gida argitaratu dugu ikastetxeetan banatzeko.



Pello Zabarte, Berbaro elkarteko kudeatzaile berria



Zaldibartarra zara, baina ondo ezagutzen duzu Durango. Zer azpimarratuko zenuke Berbarori buruz?

Berbaron langile edo bazkideak aspalditik ezagutzen ditut, baita Berbaroren jarduna ere. Azpimarratzekotan, Berbarok Durango euskalduntzea eta euskalgintza oinarri izanda, askotariko proiektuak sortzeko izan duen gaitasuna aipatuko nuke: haurren edo gazteen aisialdiari lotuta, kultur eremutik edota Durangoko Azoka moduko

ekimenen baitan.

Urtarrilaren 2an hasiko zara lanean. Zelakoak espero dituzu lehen asteak?

Ikasteko eta Berbaro barrutik ezagutzeko baliatu nahiko nituzke. Gabonetako bigarren astean hasiko naizenez lanean, aste hori ohikoa baino lasaiagoa izatea aprobetxatuko dut, egin beharrei neurria hartzeko. Apurka-apurka proiektu eta lan eremuak ezagutu nahi ditut, horiei begira nire ekarpena ahalik eta ondoen egiten hasteko.

Horrez gain, lankideak ezagutzeko unea ere izango da. Lantalde polita dagoela uste dut eta horrek gogotsu egotera eramaten nau.

Berbarok esku artean dituen proiektu eta lan-ildoen artean, zeintzuk egiten zaizkizu motibagarrienak?

Gurean euskaraz aipatuko

nuke, ume eta gazte etorri berriei begira egiten duen lanagatik. Euskarak aurrera egin dezan eremu inportantea dela deritzodalako. Bestetik, herritar guztiei zuzendutako egitasmo irekiak ere gustuko ditut: hirukoa lehiaketa edo urteko azken bertso-saioa esaterako.

Horiez gain, hamarkadetan zehar lan egin duen eta ehunka bazkide dituen elkarte izatea ere motibagarria egiten zait. Gustuko dut herritar askoren lana eta mota askotako proiektuak bultzatzen dituen eragile baten parte izatea.

Zelan ikusten duzu euskararen egoera Durangon eta Durangaldean? Zeintzuk dira erronka nagusiak?

Hamaika ekimen eta proiektu herritarrek egin dute Durango eta eskualdea euskalduntzearen alde. Horrek guztiak fruituak eman ditu. Baina oraindik asko dago egiteko. Besteak beste, hezkuntza formalaz gaindiko eremua garrantzitsua dela uste dut. Haur eta gazteen artean euskalduntzea bermatu, kalitatezko euskara lortu eta euskara sustatzen badugu; norabide egokian joango gara.

Haur eta gazte arloko teknikari lana hartu aurretik ibili zara Berbaron lanean, Haur Literatur Aretoan, hain zuzen ere. Zer moduzko esperientzia izan da?

Esperientzia oso positiboa izan da. Oso polita iruditu zait proiektu honetan parte hartu izana. Gaur egun dauden liburu eta ipuin asko ezagutzeko aukera ezin hobea iruditzen zait, haur eta gazteekin hainbat gai eta arlo garrantzitsu lantzeko baliabide egokiak baitira.

Pozik al zaude aldaketarekin? Zerk motibatzen zaitu gehien haur eta gazte arloan?

Bai, oso pozik eta baita urduri ere. Beti jardun izan dut haur eta gazteekin hezkuntza ez formalean lanean, hezitzaile legez. Orain arlo hori beste ikuspuntu batetik bizitzeko aukera izango dut eta oso interesgarria dirudit.

Zure ardurapean izango dituzun proiektuetatik zein nabarmenduko zenuke? Gustukoena duzulako, uste duzulako ekarpen handia egin dezakezula, motibazioagatik...

Orokorrean, interes handia dut

Laia Gerrikagoitia, gazte arloko langile berria

proiektu guztietan, denak berriak eta guztiz ezezagunak dira niretzat. Baina lehenago erreferentzia egindako Haur Literatur Arloko proiektuan hezitzaile bezala aritu ondoren, uste dut ekarpenak egin ditzakedala. Era berean, proiektu honen antolaketarako egin beharreko lanak ere asko motibatzen nau. Baina esan bezala, orokorrean proiektu guztiek erakartzen naute, bai ezezagunak zaizkidalako eta baita gauza berriak ikasteko aukera izango dudalako.

Zure ustez, zer behar du Durangok euskaldunago izateko?

Nire ustez, gaur egun, haur eta gazteek euskararen erabilera esperientzia positiboekin lotzea garrantzitsua da. Horretarako, haien eguneroko ekintzetara edota errealitatera hurbilduko nuke. Adibidez, gaur egun teknologia berriak pil-pilean daudenez,



hauekin harremandutako jarduerak proposatuko nituzke. Agian, sare sozialen baten euskarazko edukiak partekatu, euskarazko bideojokoak aurkeztu... ez dakit. Baina esan bezala, hizkuntza esperientzia positiboekin lotu eta gaur egungo gazteen errealitatea ere kontuan hartu beharko litzateke.

Fantasia nagusi aurtengo Saguganbaran

Beste urte batez, Durangoko Azokako haur eta helduen plaza, Saguganbara, Berbaro Elkartetik kudeatu da. Urte guztiko lana eta gero, abenduaren 6an ireki zituen atea Elkartegiko aretoak, eta abenduaren 10ean itxi. Bost egun horietan jende andana ibili da saguekin kuxkuxeatzen, liburu aurkezpenak ikusten, ipuin kontalariez gozatzan, antzetzan, kontzertuetan abesten eta beste hainbat ikuskizunez disfrutatzen.

Arrakastatsua izan da aurtengo Durangoko Azoka eta



Saguganbara ez da gutxiago izan. 3500 bisitari inguru jaso ditu guneak aurtan, durangar eta Durangaldekoek gain, Euskal Herriko txoko guztietatik etorri da jendea. Ikuskizun askok bete dute Elkartegiko aretoko edukiera, batzuk aipatzearen, Ameli eta Xirrikituen jostunek, Potx eta Lotx pailazoak, Benetan be taldeko Batetik bestera kontzertuak... Beste urte batzuetako arrakastak ikusita, ikuskizun batzuk kanpoan jarri den karpa batera atera dira. Horrela, nahi izan duen orok, lasai ikusi eta gozatzeko aukera izan du, edukiera arazo barik.

Sortzaileen artean ere, aniztasuna nabaria izan da, bai lurraldekotasunari dagokionez, baita ikuskizunen motari dagokionez ere. Ipuin edo liburu aurkezpenak nagusi izan badira ere, ez dira falta izan ipuin kontalariak, sormen tailerrak, pailazoak, dantzak, kontzertuak... Egitarauan eskaintzen diren nobedade gehienak 3-4 urtetik aurrerako umeentzat izaten dira, aurtan, osteran, 0-3 urteko umeentzat eta familientzat ere tailer berezi bat egon da, Liburu Baby Kluba. Txikiak literaturara hurbiltzeko tailer polita eman dute Mestiza Elkarteko lagunek. Aurtan ere, durangar batek, Usue Egiak, bere sormen tailerrarekin eman dio amaiera Saguganbarari. 59. Durangoko Azokako Saguganbara, aurtengoa bezain arrakastatsua izatea espero da, eta horretarako lanean ari gara dagoeneko.

ZERESANA Durangaldeko gazteak eta euskara

Durangoko Irudienean aurkeztu da 'Zeresana, Durangaldeko gazteak eta euskara' erreportajea. Lanaren helburua eskualdeko hamasei eta hamazazpi urte bitarteko gazteak hitz egiten

jarri eta berauek euskararekin duten harremana jasotzea izan da.

Gazteek beraien bizi esperientziatik euskalduntasunaz, hizkuntzen eguneroko erabileraz eta sare sozialetan zein ikus-entzunezkoen kontsumoan dituzten

ohiturez hausnartu dute. Euskarari etorkizun iluna ikusten badiote ere, beraien erabilera handitzea espero dute.

Berbaro elkarteak, Durangaldeko mankomunitatearekin batera landutako lana da hau.



Bertso artean agurtuko dugu 2023a


Urteroko ohiturari jarraituz, Urteko Azken Bertso Saioa egingo dugu abenduaren 30ean, 22:00etan Plateruenan. Guztira 320 sarrera salgai ipini genituen arren, aurten ere egun gutxitan amaitu zai-

zkigu, jendea bertso gosez den seinale. Puntako bertsolariak izango ditugu gurekin aurten ere: Nerea Ibarzabal, Julio Soto, Sus-trai Colina, Maialen Lujanbio, Gorka Pagonabarraga eta Iruri Altzerreka.



Olgetan tailerrak martxan

Aurtengo berrikuntza bezala, "Olgetan tailerrak" deituriko proiektua sortu dugu. Proiektu hau gabezia baten ondorioz sortu da, LH3-5 bitarteko umeek aisialdiko eskaintza murrizta dutelako, hain zuzen. Guztira 4 tailer prestatu ditugu ikasturte honetarako. Tailer hauek Durangaldeko hainbat elkarte, artista eta sortzailek gidatuko dituzte. Lehenengo bi ekintzak eginda daude jada, lehena Peio Azkaratek azaroa hasieran eskainitako rap tailerra, eta bigarrera, sukaldaritza tailerra, abenduaren 17an. Biak primeran joan ziren eta umeak gogotsu daude hurrengo tailerrak egiteko. Urte berriarekin batera etorriko dira falta diren bi tailerrak. Alde batetik, urtarrilean, joskintza tailerra, Amalur produktuetako Ainhoarekin, eta bestetik, udaberrian, antzerki tailerra, Karrika antzerki taldearen eskutik.



LARROSA

Larrosa, BASA etxera eramateko janari dendak daroa.

Koilara ahora sartu orduko begietatik jaten dugu askotan. Jatekoaren kanpoko itxurari erreparatzen diogu. Dastamena eta usaimenaz gain, ikusmenak ere ezinbesteko garrantzia du.

Guk jatekotik haratago ikusi dugu BASAn. Hizkuntzari erreparatu diogu. Bere instagramak zera dio: "bertako eta kanpoko platerak". Gure ikusmenak, bertako hizkuntza ere eskertu du.

ARANTZA

Arantza DEX · DURANGO ENTERTAINMENT XPERIENCE deritzon ekitaldirako da. Ekitaldia Plateruenean egin zen azaroaren 4an.

Aldez aurretik ikusi genuenak itxura ona zuen, instagrama, webgunea eta kartela euskaraz. Egunean bertan ikusi eta entzun genuenak, aldiz, ez zituen gure hasierako espektatibak bete.

Hemen adibide batzuk:

Ekitaldira joateko esku-orriak banatzen zituzten gazteek erdara hutsean luzatzen zuten gonbidapena. "Hitzaldi inspirazionalak", hau da, instagramer edo eduki-sortzaileen mahai-ingurua erdaraz izan zen, besteak beste.

Zapore gazi-goza, beraz, DEX ekitaldiak utzi ziguna.



Laguntzailea:

